

## LARREAK ETA HESKAIK

### DESKRIBAPENA

Belardiak lur zelaikoak edo erliebe leunekoak dira, eta, hitzak berak adierazten duenez, [belarra](#) hazten da haietan. [Azienda](#) bazkatzeko erabili ohi dira, eta, soberakina dagoenean, kontserbatzeko belar-bazka sortzeko. Gramineo-loreak dira belardietako landararik ugarienak.

Heskaiak zuhaixka edo zuhaitz multzoak dira, eta larreak eta belardiak elkarrengandik bereizteko erabiltzen dira. Landazabaletako landa-paisaietan, muga lana egiten dute heskaiek, eta jariatze-urak geldiarazten dituzte.




Larreak Orduntzen

### EUNIS HABITATAK










EUNIS KODEA	EUNIS Habitata
E1.26	Albiztiak eta Mesobromion taldeko larreak
E1.27	Larre harritsu kalkareoak
E1.31	<i>Brachypodium retusum</i> generoko larre xerofiloa
E1.42	<i>Lygeum spartum</i> sailak
E1.53	<i>Festuca hystrix</i> generoko paramo-larreak
E1.53(X)	<i>Stipa spp.</i> nagusitzen diren paramo-larreak
E1.6	Ganaduaren presentziarekin erlazonaturiko larre subnitrofilo mediterraniarrak
E1.72	Agrostis eta Festuca generoetako mendiko larreak
E1.72(X)	Cynodon-dun larre silizikolak
E1.73	<i>Deschampsia flexuosa</i> generoko larre silizikolak
E1.91	Lur hareatsuetako larre silizeo ez mediterraniarrak
E1.A	Larre silizeo lehor mediterranearrak
E2.11	Belardi larratuak eta manipulatu gabeko larreak
E2.11(X)	Ereindako larreak eta bazka-laboreen sailak
E2.13(Y)	Bertan behera utzitako larreak, espezie erruderalak
E2.21	Larratu gabeko sega-belardi atlantiarrak
E3.1	Belardi-ihidi basofilo medi. <i>Scirpus holoschoenus</i> -ekin
E3.1(X)	<i>Molinia</i> nagusitzen den belardi heze basofiloak
E3.2	Aldizka urperatzen diren depresioetako ihidi baxuak
E3.41	Belardi-ihidi basofilo atlantiarrak
E3.51	<i>Molinia</i> nagusitzen den belardi heze azidofiloak
E3.52	Ihidi azidofiloak
E5.6	Belarkara hostozabalak dituzten habitat antropogenikoak
E6.1	Belardi gazi mediterranearrak
E6.11	<i>Limonium</i> -estepak
E6.13.(X)	Ingurune gazietako eta kubeta endorreikoetako urteko landare edo landare zukutsuen komunitateak
FA.1	Espezie exotikoen heskaiek













### BANAKETA

Unitate horrek 124.657 ha-ko azalera hartzen du; hau da, EAEko azaleraren % 17,24.



## EMANDAKO ZERBITZUAK

HORNIDURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	ERREGULAZIO-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	KULTURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?
<b>Elikagaiak</b> 	Aziendek belardiak dituzte oinarri nagusi; bertan, larre zein bazka, biak ala biak ekoizten dira. Belardi nahiz larreetako loreen polinizazioa dela tarteko, ekosistema hauetan ezia egiten da.	<b>Klima erregulatzea</b> 	Landaredia eta lurzorua karbono-hustuleku gisa erabiltzen dira, klima erregulatzeko.  Tenperaturak baretzen ere laguntzen du landarediak.	<b>Aisialdiko jarduerak</b> 	Ekosistema hauetan, aisialdiko jarduera ugari egin daitezke (mendi-ibiliak, ehiza, etab.).
<b>Ur geza</b> 	Belardietako landarediak uraren elementu kutsatzaileak atxiki ditzake, ur-araztailea balitz bezala.	<b>Airearen kalitatea erregulatzea</b> 	Landarediak eta beste organismo batzuek aireko kutsatzaileak atxikitzen dituzte, eta haren kalitatea onartzen.	<b>Jakintza zientifikoa</b> 	Ezagutza-iturri bikainak dira ekosistema hauek, hainbat ikerketa egiteko aukera ematen dutenak.
<b>Lehengai biotikoak</b> 	Aziendek belardiak dituzte oinarri nagusi, eta, eta hartatik larrua eta artilea ateratzen dira.	<b>Ura erregulatzea</b> 	Landarediak lurzoruaren egitura sendotzen du, eta azaleko isurketak erregulatu; horrek guztiak ur-iragazketak errazten ditu, bai eta akuiferoak urez betetzea	<b>Ingurumen-heziketa</b> 	Hainbat interpretazio-zentro daude, ekosistema hauei buruzko ingurumen-heziketa oinarri dutenak: Artzantzaren ekomuseoa, besteak

HORNIDURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	ERREGULAZIO-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	KULTURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?
			ere.		beste.
		<b>Higadura kontrolatzea</b> 	Landare-diaren estaldurak garrantzi handia du lurzoruari eutsi eta, beraz, higadura kontrolatzeko. Mendi-hegalak labain daitezzen ere galarazten du.	<b>Jakituria tradizionala</b> 	Ekosistema hauetan, hainbat lanbide tradizionalekin lotutako ohiturak ikas daitezke: artzaintza tradizionala (Trashumantzia)...
<b>Energia berriztagarria</b> 	Habitat hauetan erraz lor liteke energia eolikoa, haizeak gogor jotzen baitu.	<b>Lurzorua emankortasuna</b> 	Artzaintza zenbait motatako larreetan egiten da (uda edo negua izan), eta horren ondorioz, lurra erabat emankortzen da.	<b>Paisaien estetikaz gozatzea</b> 	Ekosistema hauek gozamen-iturri ditugu, beren balio estetikoa eta kulturala dela tarteko.
<b>Gene-gordailua</b> 	Dibertsitate genetiko handikoak dira ekosistema hauek, eta horri esker, arrisku-egoeran dauden ganaduarraza autoktono asko eta asko elika daitezke.	<b>Naturako nahasketak erregulatzea</b> 	Larreek belkien lana egiten dute, euri eta urtzaldiek utzitako ura lurra iragazi eta uholderik izan ez dadin.	<b>Identitate kulturala eta toki bateko izatearen sentipena</b> 	Ekosistema hauekin estu lotuta daude gure folklorea eta kirolak.  Gure kulturako parte dira, orobat, trikuharri eta iruinariak.
<b>Sendagai naturalak printzipio aktiboak</b> 	Ekosistema hauetako landareetako batzuk sendabelartzat erabil daitezke: <i>Chamaemelum</i> espeziekoak, esaterako.	<b>Kontrol biologikoa</b> 	Sare-egiturako paisaiek izurriak erregulatzen dituzte. Adibidez: habia larreetan egiten duten zenbait hegaztik izurri-iturri diren intsektuak jaten dituzte.		
		<b>Polinizazioa</b> 	Ekosistema hauetan espezie ugari daude, eta horri esker, polinizazio-prozesuetan elikagai ugari izaten da.		

